

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



28. Informazio Buletina
2008ko Urria





NABARMENDU BEHARREKOA

Europar Batasuneko ekonomia % 0,2 igoko da 2009an

Azaroaren 3an argitaratutako Europar Batasuneko 2008-2010 aldiko aurreikuspen ekonomikoen arabera, Europar Batasuneko hazkunde ekonomikoa % 1,4koa izango da 2008an; hau da, 2007koaren erdia, eta 2009an % 0,2ra jaitsiko da. Horren ondoren, mailaz maila igoko da eta 2010ean % 1,1era iritsiko da.

EBko ekonomiek finantza arloko krisiaren eragin nabarmenak jasan dituzte; izan ere, horrek nabarmen kaltetu du higiezinaren merkatuaren doiketa hainbat ekonomiatan, kanpo eskaera berehala desagertzen ari den unean.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/1617>

Europako Kontseilua: hitzartutako Jarduera finantza sistema babesteko

Europako Kontseilua Bruselan bildu da urriaren 15ean eta 16an krisi ekonomikoa eta nazioarteko finantza krisia nagusi diren testuinguruan. Europako Kontseiluak hitzartuta eta modu globalean jarduteko erabakia agertu du Europako finantza sistema eta gordailugileak babesteko. Horrela, ekonomiaren finantzaketa normala eta eraginkorra bermatu nahi da, eta hazkundearen eta enpleguaren bideari heldu nahi zaio berriro.

Finantza krisiaren aurrean, Europako Kontseiluak modu koordinatuan eta osatuan jarduteko erabakia jakinarazi du, betiere, finantza sistemaren funtzionamendu ona berrezartzeko helburuarekin.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/ueDocs/cms_Data/docs/pressData/es/ec/103454.pdf

Europako lurralde kohesioaren gaineko liburu berdea

Europako Kontseiluak lurralde kohesioaren gaineko Liburu Berdea onartu zuen urriaren 6an. Lurralde kohesioaren helburua leku guztietako garapen orekatua bermatzea eta biztanleek bertako ezaugarriak ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izatea da. Hori dela eta, aniztasuna EBren garapen iraunkorrean lagunduko duen aktibo bihurtzeko baliabidea da.

Lehiakortasuna eta oparotasuna pertsonak eta enpresek lurraldeko aktiboak ahalik eta gehien aprobetxatzeko gaitasunaren arabera da. Ekintza politikoaren bidez, lurraldeek beren aktiboak ahalik eta gehien aprobetxa ditzakete.

Ekintza politiko gisa hartu behar diren hiru kontzeptu garrantzitsu nabarmentzen dira: dentsitate arloko aldeak konpentsatzea, distantziak gainditzea (zerbitzu publikoetarako garraiabide eraginkorretarako, energia sare fidagarrietarako eta banda zabaleko Interneteko konexioetarako sarbidea) eta administrazio mailako mugak gainditzea.

Era berean, 2009ra arte iraungo duen kontsulta publikoa egin dute. Batzordeak urte horretako udaberriaren amaiera aldera aurkeztuko du emaitzen azterketa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/consultation/terco/paper_terco_es.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Gipuzkoako Foru ALdundiak 1,35 milioi euro bideratu ditu degradatutako eremuak berreskuratzeko eta birsorkuntza urbanorako

Urriaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak laguntza programaren 2008ko Deialdia aurkeztu zuen; deialdi horren helburua degradatutako eremuak berreskuratzeko eta udalek bultzatutako birsorkuntza urbanorako laguntzak ematea da.

Degradatutako eremutat hartuko dira honakoak: hiriaren ekipamenduan gabezia nabarmena duten, urbanizatutako edo eraikitako ondarea degradatuta duten, edo ingurumen, irisgarritasun edo herritarren bizitza kalitateari nabarmen eragiten dien beste edozein arazo garrantzitsu duten lurraldeak.

Diruz lagundu daitekeen kontzeptu gisa hartzen dira hiri altzariak, egun ibilgailuen bideragarritasunera zabaldua dauden espazioak oinezkoentzako jartzea, eta gainerako herrialdeekin irisgarritasun eta barne konexio arazoak konpontzea.

Informazio gehiago:

<https://ss14.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/10/17/e0811517.htm>

Europar batasuneko eskualdeko lege batzarretako presidenteen konferentzia (CALRE)

Azaroaren 3an eta 4an, Europar Batasuneko Eskualdeko Lege Batzarretako Presidenteen Konferentziaren XII. Osoko Saioa egin zen Bilbon. Saioan zehar, Euskadiko Aitorpena sinatu zuten.

Bertan, honako hau adierazi zuten: "Europako legegintza arloko eskualdeak erronka historiko baten aurrean gaude; hau da, Europar Batasunaren funtzionamendua arautzen duten oinarriko printzipioetako baten kontrolean modu aktiboan parte hartzeko zorian. Lisboako Itunari lotuta dagoen subsidiarotasun protokolo berria eskaintzen digun parte hartze aktibo eta iraunkor hau da duela hamabi urte CALREri hasiera eman zion aldarrikapenetako bat, eta Europar Batasunak eskualdeko lege alorra Europako politikaren parte integratzaile gisa hartzea lortu du".

Informazio gehiago:

http://www.calre.eu/eu/index_eu.html



Egitura Funtzen exekuzioari buruzko urteko txostena

2007ko Egitura Funtzen exekuzioari buruzko Europar Batasunaren 19. Urteko Txostena urriaren 21ean argitaratu zuten.

2007an gauzatu zen zortzigarren aldiz, eta 2000-2006 programazio aldiari dago lotuta; aldi horretan, Egitura Funtzen programen eta proiektuen kudeaketa egokiarekin eta eraginkorarekin jarraitu zuen. Urte horretan, orotara 659 programa kudeatu ziren.

Egitura Funtsek finantzaketan lagundutako programen eta proiektuen kalitatea hobetzeko ahalegin esanguratsuak egiten jarraitu zuten. Finantza kudeaketaren ahaleginak, kontrolak eta ebaluazioak ere elkarrekin finantzatutako proiektuen eta programen administrazio ona sustatzen ere lagundu zuen.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0659:FIN:ES:PDF>

Euskal autonomia erkidegoko LANDATAR EREMUEEN sustapena eta garapena (Erein programa)

2008ko urriaren 21eko 201. EHAAn 2008ko urriaren 7ko 171/2008 Dekretua argitaratu da; horren bidez arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko landatar eremuen sustapen eta garapen laguntzen ildoak (Erein programa).

Zenbait neurri FEADERek ere finantzatuko ditu. Neurri horiek «Euskal Autonomia Erkidegoko Landatar Garapen Iraunkorren Plana 2007-2013» planaren barnean txertatzen dira; plan hori 2008ko otsailaren 15eko 704 C Komisioaren Erabakiaren (2008) bidez onartu zen.

Lerro hauek dira laguntzaren helburuak: oinarrizko zerbitzuak landatar ekonomiarako eta herrietarako; landatar eremuko herriak berritzea eta garatzea; landatar ondarea mantentzea eta hobetzea; enpresak eta horien babes azpiegiturak sortu, zabaldu eta modernizatzea; eta enplegua eta etxebizitza sortzea.

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 21ean amaitzen da.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20081021&a=200805803



Bizitza pribatua, familia bizitza eta lana bateratzea, eta horien artean oreka mantentzea

Europako Batzordeak Europako biztanle guztien (bai emakumeak, bai gizonezkoak) lana eta bizitza pribatuaren arteko oreka hobetzeko neurrien paketea proposatu du.

Amatasun baimenaren gainean Batzordeak duen proposamenak amatasun baimenaren gutxieneko aldia 14 astetatik 18 astetara luzatuko luke Batasun osoan, eta emakumeei soldataren % 100 ordaintzea gomendatuko du. Beste proposamen batzuen artean, enplegatzaileari amatasun baimenaren ondoren lan antolakuntza malgua izatea eskatzeko aukera barne hartzen da.

Era berean, autonomo gisa lan egiten duten emakumeen babesa hobetzea lortu nahi da. Europar enpresak sortzen dituzten emakumeen kopurua ugartzea eta aktibo jarrai dezaten laguntzea da helburua, beren familia erantzukizunak edozein izanda ere.

Ekimen horien bidez, egun indarrean dagoen komunitate mailako legedia eguneratzea eta hobetzea lortu nahi da, eta Europako Parlamentura eta gobernu nazionaletara bidaliko dira, eztabaida daitezten.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/1450&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

Kyotoko helburuak erdietsi ahal izateko egindako aurrerapausoak

Urriaren 16ko Europako Batzordearen Jakinarazpenak honako hau islatu du: Kyotoko Protokoloarekin bat etorriz, EB-155ek 2008-2012 aldirako berotegi efektuko gasen igorpenak erreferentzia urteko maileri dagokienez % 8 murriztea adostu duela.

Eskuragarri dauden inbentario berrieneko datuei dagokienez (2006koak hain zuzen ere), honako hau ondorioztatu daiteke: EB-15en, berotegi efektuko gasen igorpen kopurua, luraren erabilera, luraren erabileraren aldaketa eta basogintza aintzat hartu gabe, % 2,7 murriztu da erreferentzia urteari dagokionez.

1990etik hona, EB-15eko ekonomiak ia % 40 egin du gora (BPGetan adierazita). 2006an, berotegi efektua duten gasen igorpenak % 0,8 murriztu ziren 2005i dagokionez, eta ekonomia, berriz, % 2,8 hazi zen.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0651:FIN:ES:DOC>



Garapenerako lankidetzak eta tokiko agintariak

Kide diren zenbait estatutako tokiko agintariak baliabide ekonomiko kopuru esanguratsuak esleitzen dituzte garapenerako, eta laguntza entregatzeko tresna zehatzak garatu dituzte. Era berean, tokiko agintariak EBko garapen politikan izan duten mailaz mailako parte hartze honetako hainbat alderdi aitortzeko, ez da EBren ikuspegi estrategikorik erabili.

Urriaren 16ko Batzordearen jakinarazpenak eman berri den fenomenoaren garrantzia nabarmendu nahi du, eta garapen politikan bazkide gisa tokiko agintarien esperientziaren maximazioa eta kapitalizazioa ahalbidetzen duten erantzunen strategiaren lehen elementuak atera nahi ditu.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0626:FIN:ES:DOC>

Cluster politika

Batzordeak, urriaren 17an, "Europar Batasunean munduko kategoriako enpresa taldeen antolaketari buruzko jakinarazpena hartu du aintzat: berritzeko estrategia zabala aplikatzea".

Bertan adierazitakoaren arabera, Europak ez du cluster beharrik, baina merkatuaren etengabeko zatitzeak, industriaren eta ikerketaren arteko lotura ahulek eta EBren baitan nahikoa lankidetzarik ez izateak EBko clusterrek mundu mailako lehiari modu iraunkorrean aurre egiteko eta munduko kategoria lortzeko beharrezkoak diren berrikuntzarako gaitasuna eta masa kritikoa beti ez izatea eragiten dute.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0652:REV1:ES:PDF>





E-LIBURUTEGIA

Enpresa inbertsioa I+G-n

Batzordearen dokumentuak Europako 1.000 enpresak eta munduko gainerako herrialdeetako beste 1.000k I+Gn egindako inbertsioaren datu nagusiak eta adierazleak (scoreboard) aurkeztu ditu. 2007-2008ko ekitaldi ekonomikoan, gastua % 9 igo zen.

Tratamendu grafiko zabalarekin, I+Gn izandako gastuaren bilakaera eta lortutako emaitzak aurkeztu ditu, baita eremuen eta sektoreen araberrako azterketa, eta benchmarkinga ere.

I+Gn egindako inbertsioa dela eta, EBko hiru hauek daude munduko lehen hamar enpresen artean: Nokia bosgarren lekuan, I+Gn egindako 5.300 milioi euroko inbertsioarekin, Volkswagen bederatzigarren lekuan, eta Daimler hamargarren lekuan. Munduko lehen hiru enpresak Microsoft, General Motors eta Pfizer dira.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://iri.jrc.ec.europa.eu/research/docs/2008/Scoreboard_2008.pdf

Turismoa Europan

Hotelen, jatetxeen eta catering enpresen ("horeca") sektoreak, 2007. urtean, 9,2 milioi pertsonari ematen zien enplegua EB-27n, guztizko enpleguaren % 4,2, Eurostaten arabera. Lanpostu kopuru gehieneko estatuak Espainia (1,45 milioi), Alemania (1,43), Erresuma Batua (1,25) eta Italia (1,15 milioi) dira.

Horien artean, 2,3 milioi ostatu turistikoaren eskaintzan aritzen ziren lanean, guztizko enpleguaren % 1,1.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-090/EN/KS-SF-08-090-EN.PDF

Altzairuaren europako industriaren lehiakortasuna

Enpresaren eta Industriaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak sektoreak azken hamarkadatan zehar izandako bilakaera aztertzeaz gain, sektoreko enpresek garatutako eraldaketa prozesua eta doitzeko lehiakorra ere lantzen dituzte, baita etorkizunean aurre egin beharreko erronkak ere.

Lehiakide berriak agertu izanaren eraginez (batez ere Txinatik), gero eta garestiagoak diren inportatutako lehengaiakiko mendekotasuna handitzen da, eta ingurumen legedi berrien eraginez sektoreko Europako enpresek zenbait alorretan aurre egin behar dute.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/enterprise/steel/docs/final_report_steel.pdf



ADIERAZLEAK

Azken urtean 3.919 ugaritu da lanbezeian dauden pertsonen kopurua

Aurtengo urrian, Gipuzkoan, Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoko bulegoetan erregistratutako langabetuen kopurua 26.372 lagunekoa zen, aurreko urteko hilabete berebean zegoen langabetu kopurua baino 3.919 gehiago, alegia. Beste nolabait esanda, igoera % 17,5ekoa izan da.

Langabetuen % 58 emakumeak dira (% 62 duela urtebete) eta % 65ek adierazi dute zerbitzuen sektorean lan esperientzia dutela (% 66 duela urtebete).

Informazio gehiago:

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?idioma=e&tema=38&opt=0&tipo=1&mas=&otro=>

Euroguneko enpresa mailako egoeraren adierazleak

2008ko lehen erdialdeari eta mendeari dagokienez, euroguneko enpresen eta sektore handien egoeraren adierazle nagusiak aurkezten dituen dokumentua da.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-089/EN/KS-SF-08-089-EN.PDF



PARTAIDETZA

Herritarren eta energiaren foroa

Herritarren eta Energiaren Foro berria Europar Batasuneko energia merkatuan kontsumitzaileen eskubideak lantzeko eta gauzatzeko zuzenduta dagoen plataforma da. Foroaren helburua kontsumitzaileen arazoei heltzea eta konponbide praktikoak proposatzea da Europar Batasunean kontsumitzaileen egungo eskubideak praktikan errespetatu daitezkeen. Foroak energia kontsumitzaileen eskubideak lantzea eta horiek defentsa hobetzera zuzendutako gomendioak landuko ditu, baita gas eta elektrizitatearen txikizkako merkatuak ere.

Ildo horretatik, Europako Batzordearen arabera, EBn, batez beste, familia batek 1.000 euro edo gehiago aurrez ditzake urtean gas edo elektrizitate fakturretan, baina horretarako, modu adimentsuan jokatu beharko litzateke.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/1594&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>